

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,  
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### **Gasteizen lan-kontratazioa sustatzeko (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako dirulaguntza-deialdiaren barruan) 2019ko dirulaguntzen deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeko ebazpena**

I. Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko irailaren 6an hartutako erabaki bidez, lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak onetsi ziren, bai eta 2019ko irailaren 13ko ALHAOn (106. zk.) argitaratu ere. Proposamen hori Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2019ko ekitaldiko laguntza deialdiaren barruan (2019ko martxoaren 25eko EHAA) 2019ko uztailaren 9an Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez diruz lagundutako udal-proiektuan kokatzen da eta proiektu horren garapena da.

II. Deialdi haren 6. oinarrian 2019an lan-kontratazioa sustatzeko laguntza-programaren zuzkidura milioi bat ehun eta hamar mila eurokoa (1.110.000,00 euro) izango dela, eta kopuru hori handitu egin ahalko dela, Lanbideko udal-proiektuari dirulaguntza gehiago emanaz gero.

III. Laguntza-programa indarrean den bitartean, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako bigarren deialdi baten babespean (kasu horretan batez ere eremu eta udalerrri behartsuei zuzendua), zein Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2019ko maiatzaren 22ko batzarrean hartutako Erabakiaren bidez onartu baitzen (2019ko maiatzaren 31ko EHAA), 2019ko irailaren 16an Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez 977.825,60 euroko beste dirulaguntza bat esleitu zitzaion Gasteizko Udalari, horietatik 636.272,63 euro enplegua sustatzeko programetarako, eta beste 341.552,97 euro lehenago aipatutako "2019an lan-kontratazioa sustatzeko udal laguntzen" deialdirako.

IV. 2019ko urriaren 15eko idazki bidez, eta behin horri zegokion aurrekontu-aldaketa onetsi zelarik, Udalaren Enplegu Ataleko buruak "2019an lan-kontratazioa sustatzeko udal laguntzen" deialdiaren zuzkidura ekonomikoa (1.110.000 euro) 342.000 euroan handitzea onesteko eskatu zuen, horietatik 447,03 euro "Eskualdeko plana - Udalaren ekarpena" izeneko 0823.2411480.20 partidaren eskuragarri dagoen saldoaren kontura, eta beste 341.552,97 euro "Eskualdeko plana - Lanbideren ekarpena" izeneko 0823.2411480.15 partidaren eskuragarri dagoen saldoaren kontura, partida biak 2019rako luzatutako udal aurrekontukoak direlarik.

Proposamen hori Lanbideko enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2019ko ekitaldiko laguntza deialdiaren barruan (2019ko martxoaren 25eko eta maiatzaren 31ko EHAA) lagundutako udal-proiektuan kokatzen da eta proiektu horren garapena da.

Kontuan hartu da zuzkidura ekonomikoa handitzeko aukera berariaz jasotzen dela deialdia onesten duen 2019ko irailaren 6ko Gobernu Batzarraren erabakian, bai eta beraren 6. artikuluan ere.

Egiaztatu egin da badela xede horretarako zuzkidura nahiko eta egokirik 2019rako luzatutako udal aurrekontuko gorago aipatutako partidetan.

Ekonomia-Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak onespina egiteko eskumenak ditu, Tokiko Gobernu Batzarrak berariaz emandako eskuordetzearen bidez, deialdia onesteko 2019ko irailaren 6ko erabakiaren bosgarren xedape-nean jasota dagoen bezala.

Horrenbestez, eta egiaztatu delarik onestua izateko legezko eskakizunak betetzen dituela, Ekonomia-Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau onesten du:

#### Erabaki-proposamena

“Lehena. Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko irailaren 6ko erabaki bidez onetsitako (2019ko irailaren 13ko ALHAO, 106. zk) 2019an lan-kontratazioa sustatzeko laguntzen udal programa finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoen kopurua handitzeko onestea, hirurehun eta berrogeita bi mila euroan (342.000,00 euro).

Horrenbestez, 2019an lan-kontratazioa sustatzeko laguntzen udal programaren deialdia finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoen kopurua, guztira, milioi bat, laurehun mila eta berrogeita hamabi mila eurokoa da (1.452.000,00 euro).

Bigarrena. 342.000,00 euroko gastua jasotzea, kopuru horretatik laurehun eta berrogeita zazpi euro eta hiru zentimoko kopurua (447,03 euro) “Eskualdeko plana - Udalaren ekarpena” izeneko 0823.2411480.20 partidaren eskuragarri dagoen saldoaren kontura, eta beste hirurehun eta berrogeita bat mila bostehun eta berrogeita hamabi euro eta laurogeita hamazazpi zentimoko kopurua (341.552,97 euro) “Eskualdeko plana - Lanbideren ekarpena” izeneko 0823.2411480.15 partidaren eskuragarri dagoen saldoaren kontura, , partida biak 2019rako luzatutako udal aurrekontukoak direlarik.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta udalaren webgunean argitaratzeko agintzea, aurretiaz adostutakoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen inskribatu delarik.

Gasteizen, 2019ko urriaren 21ean

*Administrazio Zerbitzuko burua*  
*LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*